

ARAMA ZAITEZ

4.zenbakia

2014ko abuztua

ARAMAKO BERRIEN BOLETINA



AURKEZPENA

Beste behin ere kalean da Arama Zaitetz herri boletinaren 4.alea eta udarako oporrak pasa ondoren, azken bi hilabetetan herrian egin diren gauza berriez gain, herrian egingo direnei buruzko informazio emateko asmoz gatoz.

Azkeneko boletinean, udaleku irekien berri eman genuen eta oraingoan beraz, bertan parte hartu duten begiraleek egin diguten balorazio positiboa eta egin dituzten ekintzak ditugu kontagai; eta noski, inor ahaztu gabe, herriko jubilatuek Altzagakoekin batera egin zuten txangoaren berri bildu dugu argazki eta guzti.

Ikasturte berriari hasiera emateko, Araman egingo diren ikastaroen artean, Aramako Ostatuak antolatu duen sukaldaritza tailerra,

GAP ikastaroa eta Fraisoro Eskolatik bidali diguten ikastaroen informazioa dugu bildurik.

Ale honetan, herritarrei gogorazi nahi diegu udal liburutegia martxan dugula eta haur, guraso naiz gazteak liburutegiko txartela atera dezaten animatu nahi ditugu.

Bukatzeko, Aramako Toki Alai jatetxeko sukaldari den Anne Otegik beste errezeta goxo bat prestatu digu gure sukaldeak astintzeko.

Ea ba gustukoa duzuen 4.alea eta parte hartu lehiaketan!

Gogorarazi nahi dizuegu, zabalik ditugula atari honetako atea herritarrek beraien ekarpenak egin ditzaten.



AGENDA

Irailak 21: Erniorako irteera.

Irailak 23: Xaboi naturala nola egiten den ikasteko tailerra.

Irailak 25: Pintxo eta Gaztaintxota Kultur Elkarteko logo lehiaketa.

Irailak 26: Ume jolasak eta ondoren filme bat ikusteko aukera.

Gaeon KANTU AFARIA.

UDALEKU IREKIAK

Udalekuetan egon diren begiraleei aurtengo ze nolako balorazioa izan duten galdetuta, Mainer begiraleak honako balorazioa egin digu:

2014ko udalekuei amaiera eman zitzaienetik jada hila-bete igaro da. Aurtengotik ere balorazio positiboa egingen dugu: alde batetik prestatutako ekintza ezberdinetan hurrek gogotsu parte hartu dutelako eta bestetik gurasoek hezitzaileen lana eskertzeak aurrera jarraitzeko indarra ematen duelako. Aurtengoa berezia izan dela esan daiteke, haurren gustu eta nahietatik habiatuta egin delako udalekuetako programa. Hala nola, Abarungo aterpetxera egin zuten irteera, 6-12 urte bitarteko hurrek, eta hauek ilusio handiz eta gustura ibili zirela jakiteak, hurrengo urtera begira berriro antolatzeko gogoia pizten du. Beste urteekin alderatuz,

aurten pixka bat gehiago ausartu garela esan behar da, izan ere, bai txikienekin bai koxkorrenekin Beasaingo igerilekura joatea antolatu zen. Bai barruko igerilekuan bai eta kanpokoan lasai ibiltzeko aukera zegoen eta igerilekuak tobogana izateak hurrei motibazio handia eman zien. Ekintza gehiago ere burutu ziren: udaletxe zaharrean mosaikoa margotzea, frontenis txapelketa, Altzagara igoera, urtebetetze festa, eskulan berriak...

Haur kopuruari dagokionez beste behin ere 25 hurretik gora eman zuten izena eta urtetik urtera haur gehiagok izena ematen dutela pozgarria da. Haurrak Aramako udalekuetan apuntatu izateagaitik gurasoei esker bero bat bidaltzen dizuegu, ondo ibili eta hurrengo urtean berriro elkar ikustea espero dugu.



JUBILATUEN BIDAIA

Uztailaren 12an, Arama-Altzagako jubilatuek Zugarramurdira joan ziren egun pasa egitera.

Goizeko 8retan Aramatik irten ziren autobusez. Bertiz-en hamaiketakoa egin ondoren, Zugarramurdira iritsi ziren, eta bertan, sorginen museoa eta kobazuloa bisitatu zituzten. Azketa jatetxean bazkari bikaina egin ondoren, arratsalde pasa Sara herrira ezagutzera joan ziren.



**Egun ederra igaro
zuten!**

AUTOKARABANAK APARKATZEKO ORDENANTZA BERRIA

Aramako udalak, uztailaren 22an egindako plenoan, Araman autokarabanak aparkatzeko funtzionamendua eta erabilera arautzen duen erregelamenduari dagokion ordenantza onartu zuen eta abuztuaren 7ko aldizkarian argitaratu zen iragarkia.

Ordenantza honen helburua, Aramako Tokialai etxearen azpialdean kokaturik dagoen aparkalekua bereziki eta hiri lurzoru bezala kalifikaturiko zonaldetan kokaturik dauden aparkaleku plazak arautzea da.

ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA

1	2	3	4	5	6	7
		15:14 Ilogora				
8	9	10	11	12	13	14
	○ Ilbetea					
15	16	17	18	19	20	21
	07:13 Ilbehera					
22	23	24	25	26	27	28
		● Iliberria				
29	30					
	21:30 Ilogora					

Babespean / Negutegian: Espinaka, rukula, rabarritoa, letxuga

EREGIN

Aire librean: Perrexila, espinaka, rukula, rabarritoa

Babespean / Negutegian: Eskarola, borraja, atxikoria

LANDATU

Aire librean: Porrua, aza, azalorea, brokulia, espinaka, letxuga, eskarola, borraja, atxikoria

Egun egokienak lan bakoitzerako:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...

Sustrala: azenario, arbi, erremolaxa, patata, tipula...

Lorea: lorea, girasola, brokuli...

Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...

ATSEDENA

Beste lanak:

Ongarri berdeak erain, udaberriari ongarri behar haundikoak (tomatea, elberjina, artoa, etab) diren landareak jami nahi ditugun lur sailetan.

Neguko lore erreboiloen landaketari ékin: Tulipak, hiazinto, nartziso, iris, fresia, etab.

Udaberriari soropila eraiteko tarterrik hartu ez bazenuen, orain garai egokia izan liteke honeitarako, tenperatura atsegina eta nahikoa hezetasun badago, belar hacia azkar erneko da.

Baratza bete beterik dago, asko daukagu oraindik jasotzeko, baina tenperatura eta argitasuna behara doazenez, hilabete erditik aurrera kanpoan ez er aldatzeko ez du merezi.

Lekua egiten joaten garen heinean, hasi udazkenerako bankalak prestatzen.

Larreetan belar hazia erain eta karea bota.

ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
		○ libetea			
12	13	14	15	16	17
	15:34 lbehera				
18	19	20	21	22	23
					● lberria
24	25	26	27	28	29
				01:59 lgora	
30	31				

Beste lanak:

Izotzak etorri aurretik denbora luzez gorde ditzakegun fruituen uzta: kalabaza, intxaurreak, sagarrak etab. Heltze puntu egokian bildu eta izozteetatik babesean dagoen toki lehor eta oreatuan jaso.

Neguko lore erreboiloen landaketa: tulipak, hiazintzo, nartziso, iris, fresia, etab. Udako landareak kendu, eta lekunik bada, ilarra eta baba eraiten hasi gaitzke, hauek, beste lekarien modian, airean dagoen nitrogenoa hartu eta lurra ongarrirituko dute.

Lur pusketan libre izan ezkeru, ongarririk berdea eraitzeko momentu ona, zereala+lekaria adibidez. Hauek, lurran, denkantsatzen eta osasuna hobetzen lagunduko diote. Hurrengo sasoiari begira, haziak jaso toki lehor eta aireatu batean.

Geroa moztu eta bildu, neguan azpiak egiteko.

Urritzak ebaki, makilak egiteko.

EREN
Babespean / Negutegian: Ilarra, baba.
Aire librean: Ilarra, baba, baratxuri alea.

LANDATU
Babespean / Negutegian: Espinaka, eskarola, borraja, atxikoria, letxuga.
Aire librean: Espinaka, eskarola, tipulina.

Egun egokienak lan bakoitzerako:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...

Sustraria: azenario, arbi, erremolaxa, patata, tipula...

Lorea: lorea, girasola, brokuli...

Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...

ATSEDENA

2014-2015 IKASTURTEA

GAP IKASTAROA

2014-2015 GAP
IKASTAROA
ARAMAN

Jarduera fisikoa tresna oso eraginkorra da jendearen ongizatea hobetzeko eta aurten ere Aramako udalak 2014-2015 ikasturterako **GAP IKASTAROA** antolatu du. Ikastaroa **irailaren 15ean hasi eta ekainaren 10ean amaituko da** eta iaz 40 minutuko saio bazen, aurten iraupena ordu betekoa izango da.

Noiz: Astelehenetan eta asteazkenetan.

Ordutegia: 19:45 – 20:45

Matrikula epea irekita dago eta irailaren 12ra arte luzatuko da.

Ikastaroan izena emateko eskaera inprimakia udaletxean eska dezakezue.

“ERREZETA OSASUNTSU, MERKE ETA ERRAZAK” SUKALDARITZA TAILERRA



TOKI ALAI jatetxeak SUKALDARITZA tailer aparta antolatu du. Sukaldaritza tailer hau 4 saio-tan emango da: irailaren 6, 13, 20 eta 27an (larunbatetan).

Ordutegia: goizeko 9:30etatik 11:30ak arte.

Non: TOKI ALAI JATETXEAN

Prezioa: 80€

Kontuan izan 6-8 laguneko taldeak izango direla; beraz, interesa baduzue eman izena ahalik eta lasterren 678211206 telefono zenbakian (Anne).

(Oharrak)

Beste ordutegi batzuk nahigo badituzue bidali zuen proposamenak info@aramako-ostatua.com helbidera.

Abenduan tailerra gazteleraz emateko aukera izango da.

ANIMATU ETA PARTE HARTU IKASTAROETANI!

ARBOLAZAINTZA IKASTAROAK

Fraisoro Eskolak, Hazirekin elkarlanean, ondoko bi ikastaro hauek antolatu ditu, arbolazaintzan:

ZUHAITZAK BEGIZ EBALUATZEA ETA EGITURA ARTIFIZIALAK (kod. 357)

Datak: irailaren 29a eta 30a, urriaren 1a, 2a, eta 3a

Orduetgia: 15:30-19:30

Irakasleak: Jose Antonio Pérez eta Daniel González

Matrikula: 50 €

IGOTZE-TEKNIKAK INAUSKETARAKO (1.MAILA) (kd. 362)

Datak: irailaren 29a eta 30a, urriaren 1a, 2a, eta 3a

Orduetgia: 9:00-14:00

Irakasleak: Jose Antonio Pérez eta Daniel González

Matrikula: 75 €

Etortzeko asmorik izanez gero edota dudarik bazeneuka, deitu Fraisorora (**943 692 166**), edota e-mail bat bidali ondoko helbide honetara: fpefraisoro@hazi.es


UDAL LIBURUTEGIA

Dakizuen bezala Aramako Udalak liburutegi rik: ikasleak azterketa garaian, lanordu bananberria jarri du martxan eta herritar guztiak dua duen jendea... animatu nahi ditu liburutegia erabiltzera.

Udalaren xedea irakurzaletasuna bultzatzea da eta horretarako herriko liburutegian bertan irakurtzeko txokoaz gain liburua maileguan eraman ahal izango da.

12 urte betata badituzu etorri udaletxera eta eskatu zure liburutegi txartela!

Liburutegiko orduetgia goizeko 7:30etatik gaueko 21:30etara da, orduetgi honen helburua, erabiltzaile desberdinak erakartzea dela-

ANIMATU ETA IRAKURRI EUSKERAZ!

ERREZETA PORRU ETA PERRETXIKO RISOTO AZKARRA

Anne Otegi, Aramako Toki Alai
Jatetxea



OSAGIAK

Arroz egosia (integrala bada obe)

Porru bat

Perretxikuak (ontoak ederki doaz, txanpiak ere)

Oliba olioia

Gatza

Piper beltz hautsa

Esne apur bat (edo nata edo esne begetala)

PRESTAKETA

Erregosi zartagi batean porrua olio apur batekin; su bizitan hasi eta gero jeitsi.

Bota perretxikoak garbi garbi eta xafla finetan mozturik, eta sueztitu.

Bota esne pixka bat, gatza eta piper hautsa.

Ondo nahastu eta irakin unetxo bat.

Gehitu arroza eta ondo nahastu su gozotan esnea zupatu arte.

ONEGIN!!

LEHIAKETA

Eguraldia

A	Z	T	I	A	K	E	D	A	T
U	A	A	X	L	F	E	U	X	U
S	R	E	Q	A	J	C	I	X	Z
T	R	Z	L	I	K	N	T	M	T
I	U	E	U	N	G	Q	R	F	I
E	L	H	D	O	R	Z	U	R	K
D	E	K	R	T	A	Q	M	E	Z
O	M	R	M	U	B	A	O	S	U
H	A	U	D	T	D	Q	I	K	G
S	A	R	R	A	O	I	A	O	E

arraoia
eguzkitzu
ekaitza
elurra
fresko
hezea
hodeitsu
lainotuta
trumoia
txingorra

Betetzeko gai izan al zara?

Gogoratu, udaletxeko buzoian sartu zure erantzunak eta Toki Alai jatetxean 2 lagunentzako asteburuko menu baten zozketan sartuko zara.

Zorte on.